

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jabier Lazpiur Ibarra

*Bergara,
Gipuzkoa
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



Barrenkalean jaio zen Jabier, baina familia laster joan zen Komenio kalera bizitzera. Ama Zubiaurre auzoko Ximonenekoa zen eta aita Bergarako kalekoa. Sei seme-alaba izan zituzten. Herri eskolan ibili zen Jabier sei urtetik hamalaura arte, baina ganadu hiltegian denbora gehiago ematen zuen eskolan baino. Zazpi urterekin osaba harakinarekin lanbidea ikasten hasi zen, eta bizi guztia harakin lanetan eman du. Lanbidearekin zer ikusi duten gai guztiak jorratzen ditu: ganadua lortzeko tratuak, ganadu eta hegazti ezberdinak, hotz eta izozkailu gabeko denborak, bezeroen jateko ohitura aldaketak eta abarren inguruan mintzatzen da Jabier, lehenbizi osabarena eta gero berea izan zen “Altzeta” harategian emandako urte mordoxka gogoratzen. Gaztetako jolasak ere azaltzen ditu, eta erreka inguruan ematen zituen ordu luze bezain goxoak gogoratzen ditu. Angiozarko Maritxu Penarekin ezkondu zen eta seme bat izan zuten.

Zintak

BER-299

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-01-04
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

BER-300

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2011-01-04
- **Iraupena:** 40 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberría, Idoia

Pasarteak

1. Aitareñ ibilerak, gerra garaian

- **Erref:** BER-299/003
- **Iraupena:** 0:05:03. **Hasi:** 00:01:33. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitonak zapata lantegia zeukan, baina aítak beste bi bide bat hartu zuen: tailer mekanikoa jarri zuen, baina gerra etortzean galdu egin zuen. 250 pezetako isuna jarri zioten, gainera. Bilbon atxilotu zuten, eta Mirandara eraman preso. Gizon batek txistua bota zion. Zerrajeran egon zen lanean gero, eta gizon hori ikusi zuenean zer gertatu zen kontatzen du. Aitari Mutrikuko soldadu batek lagundu egin zion.

2. Aita kartzelan eta langile batailloietan

- **Erref:** BER-299/004
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Ez da akordatzén aita kartzelan zegoeneko kontuez, oso umea zelako. Amak aitari bere argazkia bidali zion Langile Batailloira. Hiru urte inguru egin zituen preso aítak.

3. Gerraostean beraiek goserik ez, baina ingurukoek bai

- **Erref:** BER-299/005
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerrosteko gosea. Osaba bat okina zuten eta beste bat harakina; goserik ez zuten pasatu. Eskolan baziren bera baino okerrago zeudenak. Militarrek egon ziren Bergaran, eta kapitain batek odola batzen zuen (hiltegiañ), egosi eta soldaduei emateko; tuberkulosirik ez zuten izaten hala.

4. Eskolan, bandera espainola jarri behar

- **Erref:** BER-299/006
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:12:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan ogia lapurtzen zioten poltsikotik. Eskola publikoetan ibili zen. Eskolan ezin zuten euskaraz hitz egin, zigortu egiten zituzten (botoi bat pasatzen zioten elkarri), eta kalean burla egiten zieten. Bandera espainola jartzeko nazionalisten umeak aukeratzen zituzten; besoa jaso behar zuten. Francoren irudia zuten horman. Umiliatuta sentitzen ziren, baina etxean errespetuaren balioa erakutsi diete beti.

5. Eskolatik piper, osabarengana joateko, hiltegira

- **Erref:** BER-299/007
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:12:37. **Bukatu:** 00:16:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Sei urterekin hasi zen eskolan. Hiltegira joaten zen osabarengana, piper eginda, zazpi urterekin. Lagundu egiten zion. Harakinek hiltzen zituzten animaliak; matariferik ez zegoen lehen. Guillermo karreroak garraitzen zuen haragia. Albaitaria joaten zen, Don Benito, animaliek gaixotasunik ez zutela ("lanparoiak" ohikoak ziren, tuberkulosia) eta hiltegia garbi geratu zela ziurtatzeko. Camachotarrak hasi ziren lan horretan gero. Gaixo zeuden animaliak erre egiten zituzten; ermandadeak ordaintzen zion baserritarrari.

6. Gibela, tuberkulosia zutenentzat; errazionamendua

- **Erref:** BER-299/008
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:18:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gibel bila joaten ziren tuberkulosia zutenak, harategira. Errezeta egiten zien medikuak. Gaixoek lehentasuna zuten. Residentzian tuberkulosoentzat tokia jarri zuten, ospitalean. Errazionamenduan ere ematen zuten garai batean: ez zen libre nahi zenuenari saltzea. Ogia ere saltzen zuten beraiek harategian, Bonbuluko osaba okinak egina.

7. Bonbuluko errota; gerraosteko ogi beltza

- **Erref:** BER-299/009
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:18:13. **Bukatu:** 00:22:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Bonbulu non dagoen azaltzen du. Hantxe ikasi zuten igerian, kanalean, osaba okinak erakutsita. Bonbuluko errota. Gerraostean erroten egoera zein zen. Estraperloa. Errazionamenduko ogi beltza.</p>

8. Ehun mutiko gelan, maisuarekin

- **Erref:** BER-299/011
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:22:07. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

14 urtera arte ibili zen eskolan. Mutilak bakarrik zeuden gelan. Neskak mojetara joaten ziren edo frontoiko eskolara, Kontxitarengana; oso maistra ona zen. Kaligrafia eskasa du. Aspertu egiten zen eskolan. Ehun mutiko zeuden gelan, maisu harekin. Beste maisu batzuk ere bazeuden. Makila erabiltzen zuten, ume baserritarrek eramandakoak. Errurik gabe zigortu zutenean, aita esan ziona.

9. Umetako jolasak: kalekoak auzoetakoen kontra borrokan

- **Erref:** BER-299/012
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:29:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzoak arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eskolako kontuekin baino gehiago gogoratzen da eskolaz kanpokoekin. Umetako jolasak: txikileroika, "Tres navios", gerrak beste auzo batzuetako mutikoen kontra... Tiragoma erraldoiak egiten zituzten, harriak jaurtitzeko. Karburoarekin bonbak egiten zituzten. Buztinarekin ere jolasten zuten, eta kaniketara ere bai.

10. Errekako jolasak

- **Erref:** BER-299/013
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:29:43. **Bukatu:** 00:30:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Errekan ere jolasten zuten. Egur zatiekin lasterketak egiten zituzten. Kanalean eta presa azpian ibiltzen ziren. Neskak soinekoarekin sartzen ziren uretan.

11. Mutikotan zigarro erretzen eta ardoa edaten

- **Erref:** BER-299/014
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:30:41. **Bukatu:** 00:32:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Zigarroak erretzea, umetako gaiztakeria. Bisonte tabakoa erosi zuen lehengusuak. Zorabiatu egin zen. Amak igarri egin zuen. Osabari ardoa lapurtzen zioten.

12. Buruan zauria, marroka jolasten

- **Erref:** BER-299/015
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:32:13. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eskolara joan aurretik eta ondoren ibiltzen ziren jolasean, eskolan bertan toki gutxi zutelako. Marroka ibiltzen ziren; buruan zauria egin zuen pretiletik behera erorita.

13. Eskiatzera, Arantzazura

- **Erref:** BER-299/016
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:35:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Eskiatzera joaten ziren Arantzazutik gora, Duru aldera. Motoan joaten ziren, inori esan gabe. Anaiaren eskiak erabiltzen zituen, hark soldaduskan erosiak. Goikobentan lehortu, meriendatu, eta etxera. Arrebak sendatzen zizkion zauriak.

14. 14 urterekin harategian lanean

- **Erref:** BER-299/017
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:35:32. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

14 urterekin hasi zen harategian lanean. Pasaiera joan zen txorizoak egiten ikastera. Odolosteak, berriz, etxeko formularekin egiten zituzten. Umeei lanean erakustea ona dela uste du: zenbat eta lehenago, hobe. Zazpi urterekin hasi zen bera bildotsak hiltzen. Aberea zailagoa zen.

15. Bildots larrua oso ondo ordaintzen zuten

- **Erref:** BER-299/018
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:40:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Tripakiak garbitu, animaliak narrutu... horiek ziren hasiberrien lanak. Bildots larruak asko balio zuen; Burgos aldekoek erosten zituzten. 600 pezeta ordaintzera iritsi ziren. Bildotsen tripotxak ere estimatuak ziren.

16. Estraperloko bildotsak eta hiltegiko kontuak

- **Erref:** BER-299/019
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:40:31. **Bukatu:** 00:43:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bildotsak etxean hiltzen zituzten, estraperlo garaian. Ordurako matarifea jarrita zegoen, hiltegian, eta hark kobratu egiten zuen. Larrutu ere beraiek egiten zuten orduan. Zenbakia jartzen zieten bildotsei. Erremolkearekin joaten ziren animalien bila.

17. Ganadu tratua I: baserritarrarekin zuzenean

- **Erref:** BER-299/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:43:28. **Bukatu:** 00:44:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ganadu tratua nola egiten zuten baserritarrekin. Ganadua ikusi, eta baserritarrekin zuzenean negoziatzen zuten. Konfidantza hartzen zuten, bera ere ez zelako gezurretan ibiltzen.

18. Gerran hil zuten bergararra

- **Erref:** BER-299/021
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:44:48. **Bukatu:** 00:47:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Berari ganadua saltzen zion mutilaren (izenik ez du esaten) aitona gerra garaian hil zuten, gorrien ematen zuten tabakoa hartu zuelako. Kanalera salto eginda ihes egin zuen bergarar baten pasadizoa ere kontatzen du (Osintxukoa ote?).

19. Ganadu tratua II: kanalean ala begira

- **Erref:** BER-299/022
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:47:14. **Bukatu:** 00:51:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ganadu tratua kilotan egiten zen, hiltegian, kanalean. Begira (begiz soilik ikusita, pisua kalkulatu), arraldeka, gutxi egiten zuten. Begirako tratuan normalean baserritarra galtzen ateratzen zen. Denbora gutxian pisua hartzeko moduak. Burgosera joaten ziren eroatera, sasoi batean, baina lan handia zen. Iruzurra egin zieten behin.

20. Ganadu tratua III: Errioxako ganadua

- **Erref:** BER-299/023
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:51:56. **Bukatu:** 00:53:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Errioxara joaten ziren eroatera, baina berak utzi egin zuen, txahalak gizentzeko produktuak ematen hasi zirelako.

21. Bildots tratua I

- **Erref:** BER-299/025
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:55:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bildotsak Bergarako plazara eramaten zituzten, eta gero Villafrancara joaten hasi ziren. Oñatira eta Aramaiora ere joaten ziren erostera. Bergaran artzain gutxi zegoen, eta bildotsak ez ziren urte guztian izaten (umealdi bakarra eta ez bi, orain bezala). Batzuetan artzainarekin zuzeneko tratua ere egiten zuten, plazatik aparte.

22. Bildots tratua II

- **Erref:** BER-299/026
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:55:32. **Bukatu:** 00:59:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Harakin bakoitzak bere bildotsak zituen, baina batzuetan elkarrekin egiten zuten erosketa. Prezioa Villafrancak jartzen zuen normalean. Montero tratanteak ere jartzen zituen prezioak; irundarra zen, eta hiltegia zeukan han. Baita haztegiak ere. Carrero Blanco zuen sozio moduan negozioan. Egunero 5.000 bildots exportatzen zituzten Europara. Salvoconductoa lortu zien Monterok behin, Frantziarako.

23. Harakinen txukuntasuna: eskola frantsesekoak

- **Erref:** BER-299/027
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:59:07. **Bukatu:** 01:01:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Begarako harakinak kanpora begiratzen zuten beti. FEskola frantsesekoa zen osaba, eta Gipuzkoan Bizkaian baino hobeto lan egiten zutela dio, txukunagoak zirela lanean. Amantala erabiltzen zuten beti (tela gutxi zegoen sasoian, Arantzazuko fraideek sotana egiteko erabiltzen zutena zerabilten; Milikuakoaren bitartez lortzen zuten tela hura).

24. Lehenengo hozkailuak

- **Erref:** BER-299/029
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 01:01:44. **Bukatu:** 01:04:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Harategiko lana nolakoa zen. Haragia gertatzen zuen lehenengo, piezak. Hozkailua jarri aurretik, igandetan ere lana egiten zuten. Beraiek jarri zuten Bergarako lehenengo edo bigarren hozkailua. Banco Canadian ordaindu zuten. Ramon Vizcaino. Hozkailuen arrakasta.

25. Lapurretak harategian

- **Erref:** BER-300/001
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Hozkailua, kamara eta antekamara zituzten harategian. Lapurreta egiten zien emakume batek, eskatutakoaren bila kamarara joaten zirenean, eta nola harrapatu zuten kontatzen du. Txorizoak lapurtzen zituen beste emakume batek.

26. Harategian lanean, egunean bost ordu lo eginda

- **Erref:** BER-300/002
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:02:13. **Bukatu:** 00:04:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Harategiko lanak. Jangela batzuetara haragia eramaten zuten, eta goizeko lauretan jaikitzen zen dena prestatzeko. Erretiroa hartu zuenean ikasi zuen goizeko seiak baino geroago jaikitzen. Larunbat arratsaldea izaten zuen libre; bestela, beti lanean. Askotan, egunean bost ordu lo eginda.

27. Ganadu tratura, larunbatetan

- **Erref:** BER-300/003
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:04:14. **Bukatu:** 00:07:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Ganadu traturako nola moldatzen zen, larunbatetan. Ganadua batzen zuen mutil batek, eta horrek lana errazten zion. Iruñe era ere joaten ziren, hiltzera (Bergarako Udalarekin arazoak izan zituzten); kuadrillak egiten zituzten, txandaka joateko. Denera iristen ziren, eta ez daki nola.

28. Txorizoak, saltxitxak eta odolosteak egiten

- **Erref:** BER-300/004
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:07:44. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Txorizoak arratsalde-gauean egiten zituzten. Gauerdian ere bai inoiz. Saltxitxak eta hanburgesak gutxi egiten zituzten aldiko, baina txorizoak asko. Bergarako odoloste onenak Mugarza gainekoak eta beraienak ei ziren. Astean 200 kilo tipula, makinaz xehetuta. Gipuzkoako lehenengotako pisu elektronikoa berak erosi zuen. Makinazalea da.

29. Jateko ohiturak I: gisatua egiteko astirik ez orain

- **Erref:** BER-300/005
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:12:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Jateko ohiturak nola aldatu diren. Gisatua gehiago jaten zen lehen; orain, xerra. Gisatuak egiteko astirik ez dago gaur egun. Haragia eskuz askoz hobeto ebakitzen da makinan baino.

30. Lehenengo izozkailuak

- **Erref:** BER-300/006
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:12:19. **Bukatu:** 00:13:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Lehenengo izozkailuak, duela 40 urte. Zortzi erosi zituzten, zortzi harakinentzat. Diruarekin Ameriketara alde egin zuen saltzaileak.

31. Jateko ohiturak II: odolosteak, oilaskoa

- **Erref:** BER-300/007
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:13:42. **Bukatu:** 00:16:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Odolostea gehiago saltzen zen lehen. Babarrunarekin. Oilaskoa, berriz, asko zabaldu da. Oikina izan zen hasi zena. Oilasko haztegiak. Oikinakoen gainbehera. Baserrietan oilasko gutxi egoten zen. Lehen osorik saltzen ziren oilaskoak, orain zatika.

32. Oraingo harategietan denetik saltzen dute

- **Erref:** BER-300/008
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:16:56. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Bere ustez, orain okela gutxiago jaten da lehen baino. Pizzek eta horrelakoek lekua kendu diote. Oraingo harategietan denek saltzen zuten. Espezializazioaren aldekoa da bera, baina beraien harategian ere beste gauza batzuk saltzen hasi ziren. Frantzia orain espezializaziorako joera ikusten da.

33. Errekan arrantzan

- **Erref:** BER-300/010
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:20:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Hiltegia erreka ondoan zegoen, eta arrantza egiten zuten han, kordelekin. Arrain mordoa zegoen: aingirak, barboak... Merienda asko egiten zituzten horrela. Okindegi ondoan, berriz, eskailuak harrapatzen zituzten. Sarboak sardexkarekin harrapatzen zituzten.

34. Erreka urbanizatu egingo luke

- **Erref:** BER-300/012
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:20:54. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Errekan ordu asko pasatzen zituzten, arrantzan eta jolasean. Erreka saneatzea inportantea iruditzen zaio, eta urbanizatea; hori egingo luke berak Bergaran. Alemanian ikusitako sistema azaltzen du.

35. Erromeriazalea zen; neska laguntzea

- **Erref:** BER-300/016
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:25:03. **Bukatu:** 00:28:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Ozaetako erromeriara joaten ziren. Oñatira ere joaten zen, jaietara, motoan. Aitak erabiltzen zuen egunez, eta berak gauetz. Sanmartzialak, Elosuko jaiak, Gorlakoak, Labe Garaietakoak... Neska laguntzea; behin harrika hartu zituzten bertako mutilek. Osintxura eta Arrasatera oinez. Berandu etxeratu arren, goiz jaikitzeke gaitasuna zuen.

36. Harategia itxitakoan ere lanean segi behar

- **Erref:** BER-300/017
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:28:47. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Zortziretan ixten zuten harategia, baina barruan lanean segi behar. Ezkondu ostean, lan gehiago izan zuen.

37. Aitonaren zapata lantegia eta narrutegia

- **Erref:** BER-300/020
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:34:15. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

Laburpena:

Aitonak zapata lantegia zuen, eta gera garaian enpresa militarizatu egin zen: kartutxerak egiten zituzten, bota militarrek... Balak aurkitu zituzten han, jolasean mutikotan, eta sutara bota zituzten. Aitonamonen argazkia erakusten du. Amona Zeziliak taberna zeukan, Largonekoa. Larru lantegia ez zuen

martxan ezagutu Jabierrek. Antzuolako larrua. Bizi guztirako zapatak egiten
zizkien aitonak. Argazkiak ere ateratzen zituen aitonak. Gizon ilustrea zen.

Lazpiur Ibarra, Jabier | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com